

OSPITALIZAZIO AURREKO PEDIATRIAKO LARRIALDIETARAKO PROTOKOLOAK



**Emergentzia Pediatrikoen
Diziplinarteko Taldea (EPDT)**

2026ko martxoa

Ospitalizazio Aurreko Pediatriako Larrialdietarako Protokoloak
Aurkezpen dokumentua eta aurkibidea (23.bertsioa), 2026ko martxoan
© Emergentsia Pediatrikoen Diziplinarteko Taldea (EPDT)
Osakidetza



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin CC BY-NC-SA

EPDT dokumentuen edukiak Creative Commons nazioarteko lizentzia baten mende daude: Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC-SA 4.0).

Honakoak egin ditzakezu:

Partekatu — Materiala edozein bitarteko edo formatutan kopiatu eta birbanatu.

Moldatu — Materiala nahasi, eraldatu eta hura oinarri hartuta sortu.

Honako baldintzen arabera:

Aitortu — Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaileak zu edo zure erabilera onesten duenik.

EzKomertziala — Ezin duzu erabili materiala helburu komertzialetarako.

PartekatuBerdin — Materiala nahasten, eraldatzen edo hura oinarri hartuta sortzen baduzu, jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak.

Ez dago murrizketa gehigarririk — Ezin duzu aplikatu lizentziak baimendutako edozein erabilera egiteko beste alderdi batzuk legez mugatzen dituen termino legalik edo neurri teknologikorik. Hemen kontsulta dezakezu lizentzia osorik:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/deed.eu>

Dokumentuen eta protokoloen edukiak EPDTko kideek eginiko berrikusketa-lanarekin eta irizpidearekin bat datoz, eta haien helburua da profesional sanitarioak laguntzea edo gidatzea ospitalez kanpoko esparruan gertatzen diren pediatriako larrialdien arretan. Hortaz, gomendagarria da izpiritu kritikoa izatea dokumentuak eta protokoloak interpretatzean, bai eta irakurleari atentzioa eman ahal dioten edo zalantzak sortu ahal diozkioten gai guztiak berrikustea ere.

EPDTren dokumentuak eta protokoloak Osakidetzaren webgunean daude erabilgarri:
<https://www.osakidetza.euskadi.eus/epdt/>

Nola egin EPDTren dokumentuen aipua:

Emergentsia Pediatrikoen Diziplinarteko Taldea (EPDT) Ospitalizazio Aurreko Pediatriako Larrialdietarako Protokoloak, (dokumentuaren edo protokoloaren izena). Osakidetza. [Kontsulta: urtea/hilabetea/eguna]. Eskuragarri: <https://www.osakidetza.euskadi.eus/epdt/>

Zalantza edo iradokizunik izanez gero, EPDTrekin jarri ahal zara harremanetan:

EPDT-GIDEP@osakidetza.eus

EPDT-KO KIDEAK 2026KO MARTXOA:

Emilio Aparicio Guerra (LMATko pediatra, Bilbo-Basurtuko ESla), Ander Arregi Otxotorena (medikua, EetaGS - Gipuzkoa), Aitor Arrese-Igor Etxeburua (EAGko familia-medikua, Goierri-Urola Garaiko ESla), Olga Artiñano Cuesta (erizaina, EetaGS, Gipuzkoa), Sendoa Ballesteros Peña (Medikuntza eta Erizaintzako Fakultateko EHUko irakaslea), Leire Ferro Galardi (LMATko erizaina, Arabako ESla); Carla González García (LMATko pediatra, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESla), Ainhoa González de Zárate Pérez de Arrilucea (LMATko erizaina, Arabako ESla), Iñaki Gutiérrez Landáburu (medikua, EetaGS - Bizkaia), Elene Lejarcegi Anakabe (Zumarragako Ospitaleko pediatra), Goizalde López Santamaría (Debagoieneko Ospitaleko pediatra), Edurne López Gutiérrez (pediatra, Gurutzetako UOeko pediatra), María Martí Carrera (LMATko pediatra, Uribeko ESla), Amaia Martín López (LMATko erizaina, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESla), Iñaki Molina Samos (Emergentzia Sanitarioetako teknikaria, EetaGS - Bizkaia), Marta Montejo Fernández (LMATko pediatra, Barakaldo-Sestaoko ESla), Beatriz Pacho del Castaño (LMATko pediatra, Debagoieneko ESla), Selena Rubio Marcos (LMATko pediatra, Barakaldo-Sestaoko ESla), Lucía Ruiz Aranzana (Basurtuko UOeko pediatra Basurtuko UOeko pediatra), Elena Ruiz de Velasco Artaza (LMAko farmazialaria, Bilbo-Basurtuko ESla), Belén Salinas Salvador (Donostiako UOeko pediatra).

EPDT-K PERTSONA HAUEI EMAN NAHI DIZKIE ESKERRAK:

- Carlos Sola Sarabiari (Osakidetzako Asistentzia Sanitarioko zuzendari ohia), EPDT ofizializaten eta Osakidetzaren webgunean teknikoki integratzen laguntzeagatik, eta Ana Jesús Bustinduy Bascaran (Osakidetzako Ospitaleko Arretako Koordinaziorako zuzendariordetza), Susana Martín Benavidesi (Osakidetzako Lehen Mailako Arretako Koordinaziorako zuzendariordetza) eta Jorge Romeo Ollora (Osakidetzako Lehen Mailako Arretako Koordinaziorako zuzendariordea), EDPTri babes instituzionala emateagatik beti.

- Ruth Larretxi eta Maite Landeri (Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiko Komunikazio Arloa), EPDT Osakidetzaren webgunearen bidez zabaltzen laguntzeagatik. Maite Madrid Conde eta Mikel Ogueta Lanari, (Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia), Osabide Globaleko formularioak egiten laguntzeagatik.

- Javier Benito Fernández (Pediatriako Larrialdietako atalburua, Gurutzetako UO), Andrés González Hermosa (Basurtuko UOeko pediatra) eta Pilar Vázquez Naveirari (Bizkaiko EetaGSko koordinatzaile mediko ohia), EPDT sortzeagatik eta bidean laguntzeagatik.

- Idoia Revilla Urkizari eta Gracia Garijo Gonzalo (Bizkaiko EetaGSko mediku koordinatzaileak), EPDTren lanari beti babesa emateagatik; Jesús Casas Rodríguez (Bizkaiko EetaGSko medikua), EetaGSrako eta LMArako CARDak sortzeko egindako ekarpenagatik; Mario López Mateo (familia-medikua, Barrualde-Galdakaoko ESla), Antonio de Blas de Blas (Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiko Kalitate Zerbitzua) eta Nicolás González López (Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia), aplikazioa garatzeko prozesuan egindako ekarpenengatik.

- Yudith Acuña Epelde (medikua, EetaGS - Gipuzkoa), Lizar Aguirre Pascasio (Araba UOeko pediatra), Elena Alustiza Martínez (LMATko pediatra, Gipuzkoa), Amagoia Andrés Olaizola (LMATko pediatra, Gipuzkoa), Javier Andueza Sola (LMATko pediatra, Araba), M^a Jesús Arrieta Oyarbide (LMATko pediatra, Araba), Nuria Chaves Caro (Donostiako UOeko pediatra), M^a José Correa García (LMATko pediatra, Bizkaia), Lorea Etxaburu Aizpurua (EAGko erizaina, Barrualde-Galdakaoko ESla), Iker Gangoiti Goikoetxea (Gurutzetako UOeko pediatra), Sara García Ruiz (LMATko pediatra, Gipuzkoa), Lidya Goñi Miranda (KSU, EetaGS - Gipuzkoa), Cristina Hoyos Leyva (Arabako UOeko pediatra); Amaia Maider Gurruchaga Estarbe (erizaina, EetaGS Gipuzkoa), Laura Herrero García (LMATko pediatra, Bizkaia), Itziar Iturralde Orive (LMATko pediatra, Bilbo-Basurtuko ESla), Ainhoa Larrakoetxea Zuluaga (LMATko pediatra, Bizkaia), Joseba Landa Maya (Pediatriako zerbitziburua, Donostiako UO), Gerardo Martínez de Ilarduya Alegría (medikua, EetaGS - Gipuzkoa), Uxo Jiméñez Belastegi (Basurtuko UOeko pediatra), Gisela Muñoz García (pediatra, Araba UOeko pediatra), Amalia Pérez Sáez (Zumarragako Ospitaleko pediatra), Garazi Plaza Fraga (LMATko pediatra, Ezkerraldeko ESla), Aitor Ruano López (Araba UOeko pediatra); Frédéric Samsom (Basurtuko UOeko pediatra), Ane Semperena Agirretxe (KSU, EetaGS - Gipuzkoa), Soledad Torrus Carmona (Arabako UOeko pediatra) eta Xabier Txakartegi Etxebarriari (LMATko pediatra, Bizkaia), EPDT ekarpen historikoagatik.

DOKUMENTUEN ETA PROTOKOLOEN AURKIBIDEA (online)

1. Aurkibidea eta EPDT taldearen aurkezpena
2. LMAAn pediatriako larrialdiak artatzeko praktika kliniko egokirako arauak
3. Pediatriako lekualdatzearen galdetegia (2. bertsioa)
4. Lekualdatzearen scorea (3. bertsioa)
5. Triajea LMAko Pediatrian (2. bertsioa)
6. Pediatriako pazientearen hasierako ebaluazioa: Ebaluazio Pediatriakoaren Triangelua (EPT) (3. bertsioa)
7. Ebaluazio pediatrikoa: ABCDE (3. bertsioa)
8. Mina eta analgesia (3. bertsioa)
9. LMAko larrialdien organ dagoen materiala (5. bertsioa)
10. Larrialdietarako medikazioaren CARDa LMArako (1.2. bertsioa)
11. Larrialdietarako medikazioaren CARDa EetaGSrako (1.2. bertsioa)
12. Hezur barneko bidea (4. bertsioa)
13. Krikotiroidotomia orratzarekin (2. bertsioa)
14. Neumotoraxa
15. Anbu eta maskara bidezko aireztapena (2. bertsioa)
16. Mugikortasun zerbikalaren murrizketa (2. bertsioa)
17. Nola artatu hasiera batean traumatismo periferikoa duen pazientea
18. Zunda nasogastrikoa (2. bertsioa)
19. EPDT protokoloak egokitzea covid-19ak eragindako egoerara
20. Bihotz-biriketako geldialdia: pediatriako BBB + DESA (5. bertsioa)
21. Gorputz arrotz batek eragindako arnasbideen buxadura (3. bertsioa)
22. Takikardia suprabentrikularra (4. bertsioa)
23. GEAk eragindako gorakoak eta deshidratazioa (1.3 bertsioa)
24. Intoxikazioak (2. bertsioa)
25. Etanolak eragindako intoxikazioa (2. Bertsioa)/
26. Shocka (3. bertsioa)
27. Sepsi-susmoa (3. bertsioa)
28. Anafilaxia (3. bertsioa)
29. Konbultsioak (4. bertsioa)
30. Hipogluzemia (4. bertsioa)
31. Traumatismo kraneoentzefalikoa (3. bertsioa)
32. Abdomen akutua (3. bertsioa)
33. Asma akutua (4. bertsioa)
34. Bronkiolitisa (5. bertsioa)
35. Laringitisa (4. bertsioa)

*Osabide Globalen (Osakidetzaren historia kliniko elektronikoa) EPDTko formulario hauek daude: "Pediatriako lekualdatzearen galdetegia", "Pediatriako lekualdatzearen scorea" eta "Erizaintzako triaje pediatrikoa LMA". eta, bestetik; Arreta pediatrikoan ondansentrona emateko baimen informatua; eta deshidrataziorako (Gorelick puntuaketa), bronkiolitiserako, laringitiserako eta asmarako *pulmonary score-a*.

SARRERA

Emergentzia Pediatrikoen Diziplinarteko Taldean (EPDT) hainbat maila asistentzialetako Osakidetza profesionalak daude: Lehen Mailako Arreta (LMA), Emergentziak eta Garraio Sanitarioa (EetaGS) eta Ospitaleko Larrialdiak (OL).

Taldea honako hauek osatzen dute: pediatriako larrialdien arretan lan egiten duten eta hiru lurralde historikoetako LMAko osasun-zentroak eta Etengabeko Arreta Guneak (EAG) ordezkatzeko dituzten erizain, pediatra, familia- eta komunitate-medikuak eta EetaGSko teknikari eta sanitarioak; sareko hirugarren mailako lau ospitaleak (Arabako Unibertsitate Ospitalea, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea eta Donostiako Unibertsitate Ospitalea) eta Osakidetza EetaGSak.

EPDTren lanaren emaitza **ospitalez kanpoko larrialdi eta emergentzia pediatrikoei arreta ematera bideratuta dago berariaz.**

JUSTIFIKAZIOA

- Pediatriako larrialdi gehienak osasun-zentroetan edo LMAko EAGetan artatzen dira hasiera batean.
- Aldakortasuna agerikoa da Lehen Mailako Arretan larrialdi pediatrikoak artatzeko protokolizazioan eta asistentzian, nahiz profesionalen etengabeko prestakuntzan.
- Aldakortasuna dago, baita ere, mailen arteko komunikazioan eta koordinazioan: LMA, EetaGS eta OL.
- Halaber, aldakortasuna dago paziente bakoitza LMAtik Ospitaleko Larrialdi Pediatrikoen Zerbitzura lekualdatzeko baliabide egokiena hautatzerakoan.

Horregatik, planteatzen da komunikazioa hobetzeak eta jarduerak estandarizatzeak aldakortasuna murriztuko dutela eta asistentziaren kalitatea, baliabideen optimizazioa eta pazientearen segurtasuna handituko dituztela.

HELBURU OROKORRA

Ospitalez kanpoko eremuan asistentzia sanitario urgentea behar duten pediatriako pazienteen arreta eta segurtasuna hobetzea.

HELBURU ZEHATZAK

- Asistentzian aldakortasuna murrizten laguntzea, tresnen, lan-prozeduren, protokoloen eta laguntza-tekniken bidez
- Pediatriako larrialdietan arreta emateko, osasun-zentroetan behar diren baliabideei buruzko gomendioak egitea: larrialdietako orgaren materiala, dokumentazioa, informazio- eta komunikazio-baliabide teknologikoak, etab.
- Profesionalen arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetzen laguntzea
- Garraio-baliabiderik egokiena aukeratzeko prozesua erraztea, EPDTren lekualdatzearen scorearekin

- Medikazioa premiaz emateko prozesua erraztea, EPDTren *card* delakoen bidez
- EPDTren protokoloak eta tresnak etengabe eguneratzea
- Edukiak bitarteko digitalen bidez zabaltzea: weba eta APPa

IRUZKINAK

Lekualdatzearen scorea dokumentuak eragin zuen taldea sortzea, eta aurrenik sortu eta argitaratu zen dokumentua izan zen (2013ko urria). Dokumentu horrek Emergentsietako koordinatzaile medikoarekin haurarentzat garraio sanitarioko baliabide mota egokiena zein den erabaki eta adosteko balio du. Scorea pazientearen egoera fisiopatologikoa eta bizi-euskarriko beharrak islatzen dituzten parametroen eta konstanteen balorazio objektiboa kontuan hartuta betetzen da. Ildo horretatik, azpimarratu behar da, scoreko itemak betetzerakoan, ez direla soilik kontuan hartu behar haurrari lekualdatu aurretik aplikatu zaizkion itemak: komenigarritzat jotzen ditugun guztiak edo haurrak beharko lituzkeen item guztiak hartu behar ditugu kontuan, guk eman ezin izan badizkiogu ere. Adibidez, baliteke haurrak intubazio orotrakeala edo zain-bide bat behar izatea, eta lekualdatu bitartean egitea. Alderdi hori oso garrantzitsua da Emergentsietako mediku koordinatzailearekin hitz egitean, balio balitu haurra LMAko zentro batetik edo EAG batetik (Etengabeko Arreta Gunea) lekualdatzeko garraio edo anbulantzia motarik egokiena zein den zehazteko. Izan ere, LMAko zentroetan eta EAGetan, pediatrik ez diren baina haurrak artatzen dituzten larrialdietako medikuek egiten dute lan, eta, batzuetan, benetako emergentzia pediatrikoei aurre egin behar izaten diete, eta, gure ustez, protokolo hauek oso lagungarriak dira halako egoerarako.

Larrialdietako protokolo horiei dinamismoa ematen dien berezitasun bat da haurraren egoera fisiopatologikoaren balorazio objektiboan oinarritzen direla, **Ebaluazio Pediatrikoaren Triangeluaren (EPT)** eta **ABCDE ebaluazioaren** bidez, pazientearen egonkortzeko laguntza-neurriak aplikatzeko, ondorengo tratamendua eta azken emaitza eraginkorragoak izan daitezen (American Academy of Pediatrics [AAP], American College of Emergency Physicians [ACEP]. APLS: The Pediatric Emergency Medicine Resource).

2017ko apiriletik aurrera, argitaratutako protokolo berrietan eta erakunde klinikoei buruzko berrikuspenetan (adibidez: anafilaxia, laringitisa, etab.), **GNS10eko kodeak** gehitu dira apurka-apurka, informazio klinikoan eta pazientearen arretan uniformetasuna lortzeko oinarri gisa: (https://eciemaps.mscbs.gob.es/ecieMaps/browser/index_10_mc.html).

2019ko 2. seihilekotik aurrera, berritasun bat gehitu da protokolo batzuetan: **Lehen Mailako Arretatik berezitateko atal** bat dago, **garraio sanitarioko jarduketari buruzkoa** (EetaGS), batez ere anbulantzia medikalizatuei dagokienez (EetaGSerako CARDa; bronkiolitis larrietarako jarduketa EetaGSn, aireztapen ez-inbaditzailearen bidez, etab.). Hasteko, LMAko eta EAGko jarduketa-protokoloa agertzen da, eta, atal berezi batean, hori koloreko laukietan, bizi-euskarri aurreratuan (BEA) lekualdatzeak egiteko jarduketa; EetaGSrako CARDen kasuan, ordea, beste dokumentu batean agertzen da atal berezia.

Protokolo, medikamentu-dosi eta abar bakoitzerako oinarri gisa balio duten edukia eta gomendioak **gida kliniko** nagusien azken bertsioetatik atera dira, baita erakunde bakoitzerako **erreferentzia bibliografiko** garrantzitsuenak eta eguneratuak **bilatu eta berrikustetik** ere.

Kontuan hartu behar da protokoloak baliozkotu eta argitaratu eta biharamunean hasten direla indarra galtzen. Horregatik, **protokoloak etengabe eguneratzea** da asmoa. Argitalpen itxietan, eskuliburu formakoetan, zaila da aldaketak egitea egoera berriei erantzuteko. Horregatik, dokumentuak *online* esteken bidez zabaltzea erabaki dugu, banaka ordezkatu ahal izateko, arrazoizko epe batean, behar den bakoitzean.

Berrikusitako bertsioetan, erabilitako bibliografia adierazgarriena gehitzen dugu. Horrez gain, 2016tik aurrera argitaratutako protokoloetan, erabilitako bibliografia islatzea ere erabaki genuen, eta hala egiten dugu (hasieran ez zen halakorik egiten, orduan tokia eta edukia eskematizatzea lehenetsi zelako). Gainera, asmoa da protokolo kliniko bakoitzaren bertsio berriak gehenez ere 5 urteko tartearekin editatzea, nahiz eta ebidentzian edo gomendioetan aldaketa nabarmenik egon ez, erreferentzia bibliografikoak berrikusi eta eguneratzeko helburuarekin.

COVID-19ak eragindako pandemiak ekarri duen egoera asistentzialari dagokionez, kontuan hartu da protokolo asistentzial batzuetan jasotako zenbait maniobra eta jarduketa sanitario aldatu egin behar zirela prebentzio-arauetara egokitzeko, infekzioa zabal ez zedin. Horregatik, beste protokolo bat gehitu da, "EPDT protokoloak egokitzea covid-19ak eragindako egoerara" izenekoa.

Protokolo bat edo dokumentu bat berrikusi bada (diseinu hobetu zaiolako edota gomendioak edo ebidentzia zientifikoa aldatzearen ondorioz edukia eguneratu delako), parentesi artean agertuko da bertsiorik berrienaren zenbakia aurkibidean.

Oro har, protokolo bakoitzaren barruan, **kolore-kode** bat dago algoritmoetan agertzen diren laukietan: berdea, laranja edo gorria, larritasun- edo larrialdi-mailaren arabera; urdina, tauletarako edo erantsitako iruzkinak edo informazioa duten koadroetarako, eta abar. Hori kolorea bizi-euskarri aurreratua duten garraio sanitarioetan egin beharreko jarduketetarako erabiltzen da; garraio horiek, hain zuzen, LMAko zentroetan eta EAGetan ez dauden osasun-baliabideak dituzte (kapnografia, medikamentu jakin batzuk, arnas-euskarri inbaditzaile eta ez-inbaditzailea, etab.).

Aipamen berezia behar dute **CARDek**. Dokumentu horietan biltzen dira larrialdiak tratatzeko gutxitan erabiltzen diren medikamentuak edo dosi terapeutikoko barruti estua dutenak. CARD horietako informazioa adin eta pisuen arabera dago banatuta, eta medikamentu eta dosi horien berehalako erabilera errazteko eta haiek prestatzean eta ematean egon ahal den akats-arriskua murrizteko balio du. 2 CARD mota daude: batetik, LMA (osasun-zentroak eta EAG) erabiltzen diren medikamentuak jasotzen dituztenak, zeinak LMA eskuragarri dagoen larrialdietako orgako materialen artean dauden, eta, bestetik, Emergentsietako eta Garraio Sanitarioko ambulanzietan erabiltzen diren medikamentuak jasotzen dituztenak, zeinetan baliabide terapeutiko gehiago dauden eta eskualdeko ospitaleetan ere erabili ahal diren. Dena dela, bien ala bien helburua da profesionalen lana erraztea eta pazientearen segurtasuna indartzea larrialdiei aurre egitean, hirugarren mailako ospitaleko pediatriako larrialdi-zerbitzura iritsi aurretik.

LAN-METODOLOGIA

2012/10/01ean, taldea sortu zen eta, 2013an, profesionalen taldea finkatu zen.

Hona hemen lan-sekuentzia eta -metodologia:

- Helburu espezifikoak lantzea: lan-tresnak (inkesta, lekualdatzearen scorea, galdetegia) eta protokoloak
- Etengabeko interrelazioa Osakidetzaren Osagune tresna korporatiboa erabiliz
- Lurraldearteko aurrez aurreko aldizkako bilerak, bideokonferentzia bidez (urtean 6 inguru)
- Zereginak taldekideen artean banatzea, gero Osagunen berrikusi eta eztabaidatzeko
- Protokoloak zabaltzea Osakidetzaren extranetaren bidez:
<https://www.osakidetza.euskadi.eus/informazioa/emergentzien-pediatrikoen-diziplinarteko-taldea-epdt/webosk00-procon/eu/>
- Emaizak aztertzea, taldeak diseinatutako kalitate-adierazleen bidez
- Protokoloak eta tresnak etengabe eguneratzea

EMAITZAK

- Lantaldea finkatu da (2013).
- 2013ko eta 2023ko azken hiruhilekoaren artean, dokumentu honen aurkibidean agertzen diren dokumentuak eta protokoloak osatu dira. Horietako batzuk jatorrizko bertsioen berrikuspenak dira, gomendioen indarrean eta ebidentzian izandako aldaketen ondoriozkoak.
- “Pediatriako lekualdatzearen galdetegia”, “Pediatriako lekualdatzearen scorea” eta “Erizaintzako triaje pediatrikoa LMAN” formularioak Osabide Globalean erabilgarri.
- Emaizak zabaltzea: scorea eta taldearen protokoloak eta dokumentuak zabaltzeko hainbat saio, txosten eta bilera zientifikotan parte hartu da.
- Gaur egun, web-esteken bidezko hedapena ezarri da, EPDTko dokumentuak etengabe hedatu eta eguneratu ahal izateko, gaztelaniaz eta euskaraz:
[Emergencia Pediatrikoen Diziplinarteko Taldea \(EPDT\) - Profesionalak \(euskadi.eus\)](#)
- Dagoeneko argitaratuta dauden protokoloak berrikusten eta eguneratzen jarraitzen da, eta gai berriekin protokoloak egitea aurreikusten da
- Kalitate-adierazleak sortu dira emaitzak ebaluatu ahal izateko
- 2023ko ekainean, balorazio-inkesta bat egin zaie EPDTaren erabiltzaileei, hautemandako beharren arabera emaitzak testatu eta birbideratu ahal izateko. Inkesta honen emaitzak argitaratuak izan dira eta EPDTko web orrialdean eskuragarriak: [Resultados-Encuesta-GIDEP-full.pdf](#)

EPDT-West aplikazioaren proiektua: profesionali ospitalez kanpoko esparruan pediatriako emergentziei arreta ematen laguntzen dien lankidetzako app proiektua

2021eko martxoan, EPDTk profesionali laguntzeko mugikorretarako aplikazioa osatu zuen. Aplikazioa **Emergentzia Pediatrikoen Diziplinarteko Taldeak (EPDT)**, eta **Weight Estimation Tools proiektuko (WEST)** ikertzaileek diseinatu dute, eta Osakidetzak finantziatu du. WEST proiektua erizaintzako lan-ildo bat da, eta Bilbo-Basurtuko ESiko eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko (Osakidetza) ikertzaile independenteek osatzen dute, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan (UPV/EHU). Aplikazioa BioCruces-en eta BIOEFen babesarekin sortu da.

"Pediatriako larrialdiak EPDT/West" aplikazioa **ospitalez kanpoko esparruan pediatriako larrialdiei eta emergentziei arreta sanitarioa ematen** laguntzeko tresna bat da. Gainera, aplikazioak pediatriako pisua kalkulatzeko algoritmo propioa ere badu, "Bilbao 2018 Formulak" izenekoak, WEST taldeak garatua, zeinak aukera ematen baitu sendagaien dosiak segurtasunez kalkulatzeko.

Aplikazioa euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez dago erabilgarri.

2021eko uztailetik, Android-erako eta iOS-rako dago erabilgarri, [PlayStore-ren](#) eta [Apple Store-ren](#) bidez, hurrenez hurren, eta doan deskargatu ahal da ("Larrialdi Pediatrikoak EPDT/WEST"). Azken bertsioa, 2026ko otsailean eguneratua: 3.2.13

Android (Play Store):



iOS (Apple Store):



AITORTZAK ETA SARIAK

2021eko irailaren 30ean, App-ak **Larrialdi Pediatrikoen Espainiako Elkartearen (SEUP) abal zientifikoa** jaso zuen, 2122 identifikazio-zenbakiarekin.

2021eko azaroaren 10ean, App-ak sari bat irabazi zuen Diario Médico eta Correo Farmacéutico aldizkariak emandako **E-nnova Health 2021** sarien 1. edizioan, **Pazientearen ahalduntze digitalaren kategorian**. Hala, ekimen digitalak aintzatetsi dira, balioa ekarri dutelako, sistemaren jasangarritasunari laguntzen diotelako eta pazientearen bizitza hobetzen dutelako.

ONDORIOAK

1. Haur batek prozesu fisiopatologiko larri bat badu eta LMAtik edo EAGtik ospitalera garraio sanitario bidez eraman behar badute, arreta horrek **diziplina anitzeko arreta-prozesu** bat abian jartzea eskatzen du, eta prozesu hori **adostuta eta protokolizatuta** egon behar da.
2. **EPT eta ABCDE bidez sistematikoki ebaluatzeak** haur bakoitzaren egoera fisiopatologikoaren araberako egonkortze-beharrak eta larritasun-maila bereizten laguntzen du.
3. **Lekualdatzearen scoreari** esker, errazagoa da haur bakoitzak lekualdatzeko behar duen garraio sanitarioko baliabidea zehaztu eta adostea.
4. **Protokoloak** modu independentean **baliozkotu eta zabaltzeko** moduak eta Osakidetzaren extraneten zein intraneten esteka bidez erabilgarri egoteak aukera ematen du protokoloak bereiz eguneratzeko, bakoitzean aldaketa garrantzitsuak gertatzen diren bakoitzean.
5. Profesionalei laguntzeko **EDPT-West aplikazioak** asistentzia- eta kontsulta-gida bat eskaintzen du, ospitalez kanpoko emergentzietako patologia pediatrikoari arretako arazo ohiko batzuei erantzuteko.